

INDIAKO KULTUR ANIZTASUNA



Rajesh Devi

GIZA LIBURUTEGIAK 2018

GIZA LIBURUTEGIAK 2018

Pertsona bakoitza liburu bat da. **"Giza Liburutegien"** bitartez kultura eta bizipen desberdinak ezagutuko dituzu.

"Giza liburutegiak" Kopenhagen 1993 urtean sortu zen proiektu bat da. Saio hauen helburua diskriminazioa murriztea da, desberdintasunari balorea emanaz eta elkarrizketa eta tolerantzia bitartez, bizitza estilo edo kultura desberdinetatik datozen pertsonenganako ulermena bultzatzen da, ikaskuntza sustatuz.

Saio bakoitzean parte hartzaileak taldean esertzen dira eta aurkezpen eta elkarrizketa gurutzatuak burutzen dituzte. **"Giza Liburutegien"** protagonistak euren kontakizunak partekatzen dituzte, elkarrizketa eta harremanen bitartez. Honela hizlaria **"liburu"** bilakatzen da eta entzulea berriz **"irakurle"**.

Rajesh Devi eskertu nahi dugu Elkarrekin Kooperatiba Txiki elkartearen eskutik etorri izanagatik bere esperientzia partekatzera. Eskerrik asko zuen ekarpenarengatik.

Kontakizuna testura moldatzea: Kattalin Miner

Indiako kultur aniztasuna

Rajesh Devi dut izena, Indiakoa naiz eta Donostian bizi naiz orain dela 11 urte. Bi alaba ditut. Gaur Indiako kulturaz hitz egingo dut.

Herrialde handia da India: 29 estatuk osatzen dute, eta idatziz bildutako 22 hizkuntza daude bertan. Ahozkoan, ordea, 2.400 hizkuntza daude. Indian elkarrekin bizi dira erlijio guztiak eta estatu guztiek badute nork bere kultura, hizkuntza, festa eta bizimodua. Horregatik, Indiako kultura oso ezaguna da. Hizkuntza nazional bat dago, hindia, baina Indiako hizkuntza zaharra sanskrito da, erlijio zaharretako testu guztiak sanskritoz baitaude, hala nola Majabharata, Bhagavad-gita eta Ramayana izeneko testuak, gure liburu sakratuak.

Indian sei urtaro daude eta jaialdi asko egiten ditugu. Estatu bakoitzak badu bere jaialdia, denak ezberdinak, baina badaude beste jaialdi nazional asko, eta jaialdi horiek denok ospatzen ditugu elkarrekin. Oso alaia eta polita da, erlijioak ez baitu axola, egun horretan denok batzen gara ospakizunean.

Modernizatzeko bidean dago India, baina bere kultura eta baloreak bizirik daude oraindik. Adibidez, familia asko elkarrekin bizi da oraindik, familiako kide guztiak batera.

Ezkontzei dagokionez, Indiakoak ez dira hemengoak bezalakoak, erlijio bakoitzak badu bere erritua. Adibidez, hinduismoaren arabera, ez dira soilik ezkontideak ezkontzen, bi familiak ezkontzen dira. Beraz, ohikoa da ezkontideak ez ezkontzea elkar maite dutelako, aitzitik, familiak erabakitzen du norekin ezkonduko den alaba edo semea. Bestalde, azpimarratu behar da, zure erlijioako kide batekin ezkondu behar duzula. Ezkontzak oso gertakari garrantzitsuak dira guretzat eta, horregatik, festa handi bat antolatzen dugu, astebete baino gehiago irauten dutenak.

Bestalde, mutilak ezin dira ezkondu 21 urte bete arte, eta neskek, berriz, 18 urte bete arte, baina askotan legea urratzen da, eta, adibidez, musulmanak 18 urte bete aurretik ezkontzen dira.

Erljioez gainera, kastei buruz ere hitz egin nahi dut. Indian, oraindik ere, kastak indarrean daude: jaiotzatik bertatik gizartea klase sozialaren arabera banatzen duten mailak dira kastak. Ez dira legezkoak, baina eragin handia dute, eta arrazakeria handia dago. Adibidez, hinduismoak lau kasta ditu, gizarte-klaseei loturikoak. Indiako gizarteko vedikoko jatorrizko lau klase nagusiei dagozkie.

Lehenengo kastan, Brahmins delakoan, hor biltzen dira erlijio-adituak eta irakasleak; bigarren kastan, Kshatriya delakoan, hor biltzen dira gobernariak eta gudariak, lurjabe eta agintari baitira; hirugarren kastan, Vaishya delakoan, hor biltzen dira artisauak eta saltzaileak, eta, azkenik, Shudras kastan, langileak eta zerbitzariak biltzen dira.

Nire aitak lurrak ditu, eta manupeko langileak, eta gu ezin gara haiekin eseri. Betsalde, ezin zara ezkondu zure kastaz kanpoko norbaitekin, orduan beste abizen bat duen norbait bilatu behar duzu, ez dadin zure senidea izan, adibidez, beste hiri bateko norbait, baina kasta berekoa.

Herrialdearen iparraldean gauzak aldatzen ari dira, kastek ez dute halako indarrik eta elkar maite duelako ezkontzen da jendea.

Hezkuntzari erreparatuz gero, egoera aldatzen ari da. Lehen ez zen askorik ikasten, baina gobernuak aldaketak ezarri ditu, eta, orain, haur guztiek eskolara joan behar dute, derrigor, 6tik 14 urtera bitarte. Familiak ez badu baliabiderik, gobernuko eskola doakoa da 14 urte egin arte. Gainera, fundazio askok laguntza handia eskaintzen dute haurrak eskolara joan daitezen.

Ikusten duzuen bezala India oso handia da eta kultura asko ditu, nik horren zatitxo bat besterik ez dizuet ekarri.

GIZA LIBURUTEGIAK BIBLIOTECAS HUMANAS



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**
Kultur Aniztasuna
Diversidad Cultural